

“Nire matxinada da, objektuen mugimenduan fokua jartzea, eta, beraz, kultura kritikoa aldarrikatzea”

Itziar González Virósekin solasean



Ianire de Andres Olabarria
Arkitektoa eta Aldiri aldizkariko kidea

Elkarrizketa data: 2017-12-08
Onartze data: 2018-05-04

Itziar González Virósek (Bartzelona, 1967) Bartzelonako Goi Eskola Teknikoan egin zituen Arkitekturako ikasketak. Ibilbide profesionala hasi orduko, zin hipokratikoa egin zuen: ez zuela sekula obra berririk diseinatu. Geroztik, aktibistatza jotzen du bere burua, eta eraldaketa sozialaren inguruan jardun du hirigintzatik, batez ere. 2007tik 2010era Bartzelonako Ciutat Vella barrutiaren errejidorea izan zen, baina kargua utzi zuen ustelkeria-kasu bat salatzeke. Parlament Ciutadà egitasmoaren sustatzailea da eta *Institut Cartogràfic de la ReVolta*ren sortzaileetako bat. 2017ko ekainean Bartzelonako Ranblen birmoldaketa egiteko txapelketa irabazi zuen Km-ZERO lantaldearekin, eta gaur egun horretan ari da buru-belarri. Arkitektura eta hirigintza diziplinen inguruko inspirazio-iturri agorrezina denez, berarengana jo dugu kanpoko ikuspegia eman diezaion begirada anitzez jositako bilduma honi.

Aldiri: *Topaketak eta kartografia. Zein da haien lekua zuk aldarrikatzen duzun matxinadan?*

Itziar: *Hasteko, azaldu nahi nuke zergatik aldarrikatu matxinada eta ez iraultza. Beti pentsatu izan dut iraultza hasiera eta bukaera dituen zikloa dela, egoera berri zehatz bat lortzeko sortzen den uneko mugimendua. Aldiz, matxinadaren emaitza ez da estatikoa, helburua bera baita mugitzea, aldatzea, etengabe kritikan mantentzea. Horrela, matxinadak topaketak berez sortzen ditu; izan ere, gorputzak etengabe lekualdatzen direnean bakarrik aurkitu eta elkartu daitezke.*

Kartografiaren papera bestelakoa da: beti esaten dugu mapa egiten duenak mundua egiten duela. Lurraldea marrazten duenak irudi hori finkatu eta boterea bereganatzen du. Gure proposamena da herritarrek euren ikuspegiaren arabera marraztea bizi diren lurraldea, ziur gaudelako boteredun instituzioek marrazten dutenaren aldean ezberdina izango dela. Adibidez, Ciutat Vellako (Bartzelona) instituzioek auzoak, etxebizitza-egiturak eta jendearen bizimodua marraztu beharrean, monumentuak eta eraikin interesgarriak irudikatzen badituzte, politikak ere amu horietatik etekinak ateratzeko bideratuko dituzte. Eta industria turistiko erazleak mapa horrekin finkatuko du negozioaren estrategia, non gainerako etxebizitza-egitura guztia jarriko duen monumentuak ikustera datozenek behar dituzten ostalaritza-zerbitzuen menpe. Aldiz, udalak eskolak, kulturetxeak, mahai-inguruak egiten dituzten tabernak, eta abar marraztu balitu, orain, Ciutat Vella beste egoera batetan egongo litzateke, adibidez, Berlinen bezala, prezio duineko etxebizitzak eskaintzen, gertuko azpiegiturak bermatzen, eta abar. Horrela, pertsonak egongo lirarteke plangintzaren zentroan, eta ez objektuak.

Norberaren mapa marraztea subiranotasun-ekimen garrantzitsua da, horregatik, Institut Cartogràfic de la Revolta-n egiten genituen tallerretako partaideei tresnak eman genizkien lurraldea euren interesen arabera marraztu eta plangintzako mapekin alderatu zezaten.

A: *Aurtengo eta iazko «Hiria eta Bestelako Politikak» jardunaldiek (Tabakalera) boterearen eragina dute aztergai. Arkitekturatik indarkeriaz aritzen gara?*

I: *Bai, izan ere, hirigintzan erabakitzen dugunean esparru bat gune berdea izango dela, berez positiboa beharko luke, baina eremu hori marrazten dugunean, benetan esaten duguna da: hor dauden etxeak orain ez dira ezer, izango direna*